BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS

Zerbitzu kontratua	Contrato de servicios
Xedea: Zumaiako Itzurun eta Santiago hondartzetan zaintza, salbamendu eta laguntza zerbitzua kontratatzea	**Objeto:** Contratación del servicio de vigilancia, salvamento y asistencia en las playas de Itzurun y Santiago de Zumaia
Prozedura irekia **Izapidea: ohikoa**	**Procedimiento abierto** **Tramitación: ordinaria**

Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

AURKIBIDEA

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS

ÍNDICE

I. LEHIAKETAREN XEDEA

2. KONTRATUA BURUTZEKO EPEA

3. ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA

3.1.- Bainurako guneak mugatu

3.2.- Zaintza

3.3.- Salbamendua

3.4.- Laguntza

4. ZERBITZUAREN ANTOLAKETA

5. ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA ETA BITARTEKOAK

6. ENPRESAKO LANGILEAK

6.1.- Zaintza, salbamendu eta laguntza zerbitzua

6.2.- Langileen profila

7. MATERIALA ETA ERREMINTAK

8. INSTALAZIO FINKOAK

9. ESKAINTZAK BALIOESTEKO IRIZPIDEAK

10. PREZIOA

11. HIZKUNTZA BALDINTZAK

12. ASEGURUA

13. ZAINTZA ETA IKUSKARITZA

I.- OBJETO DEL CONCURSO

2.- PLAZO DE EJECUCIÓN

3.- DESCRIPCIÓN DEL SERVICIO

3.1.- Delimitación de las zonas de baño

3.2.- Vigilancia

3.3.- Salvamento

3.4.- Ayuda

4. ORGANIZACIÓN DEL SERVICIO

5. DISPOSICIÓN Y MEDIOS

6. PERSONAL DE LA EMPRESA

6.1.-Servicio de vigilancia, salvamento y asistencia

6.2.- Perfil del personal

7. MATERIAL Y UTENSILIOS

8. INSTALACIONES FIJAS

9. CRITERIOS DE VALORACIÓN DE LAS OFERTAS

10. PRECIO

11. REQUISITOS LINGÜÍSTICOS

12. SEGURO

13. VIGILANCIA E INSPECCIÓN

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS

ZERBITZU KONTRATUA	CONTRATO DE SERVICIOS
Xedea: Zumaiako Itzurun eta Santiago hondartzatan zaintza, salbamendu eta laguntza zerbitzua kontratatzea	**Objeto:** Contratación del servicio de vigilancia, salvamento y asistencia en las playas de Itzurun y Santiago de Zumaia
Prozedura irekia **Izapidea: ohikoa**	**Procedimiento abierto** **Tramitación: ordinaria**
CPV nomenklaturaren kodetzea, kontratuaren xedeari dagokiona: **75241000-7 eta 75252000-7**	Codificación de la nomenclatura CPV correspondiente al objeto del contrato: 75241000-7 y 75252000-7

ZUMAIAKO ITZURUN ETA SANTIAGO HONDARZETAN ZAINTZA, SALBAMENDU ETA LAGUNTZA ZERBITZUA KONTRATATZEA BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

1.- LEHIAKETAREN XEDEA

Agiri honetan oinarrituta egingo den kontratuaren xedea hau da: udaldian Zumaiako Santiago eta Itzurun hondartzetan zaintza, salbamendu eta laguntza zerbitzua ematea. Zerbitzu horrekin, kostaldean larrialdi kasuetan arriskuan dagoen populazioari, laguntza iraunkorra emateko gai izango den arreta zerbitzua eskainiko zaio.

2.- KONTRATUA BURUTZEKO EPEA

Kontratu hau burutzeko epea kontratuaren urte bakoitzeko udaldiari dagokio, bi urtekoa izango da, hau da, 2023 eta 2024 urteak.

Oro har, udaldi ofizialak ekainaren 15etik irailaren 15era bitarteko egun guztiak (biak barne) hartuko ditu.

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARA LA CONTRATACIÓN DEL SERVICIO DE VIGILANCIA, SALVAMENTO Y ASISTENCIA EN LAS PLAYAS DE ITZURUN Y SANTIAGO DE ZUMAIA

1.- OBJETO DEL CONCURSO

El contrato que en base al presente Pliego se realice tendrá por objeto la contratación de la prestación de los servicios de vigilancia, salvamento y asistencia en la totalidad de las playas de Itzurun y Santiago de Zumaia, durante la temporada estival. Se pretende de esta manera dotar a la población en riesgo, de un servicio de atención en caso de urgencias capaz de aportar ayuda permanente en la zona costera.

2.- PLAZO DE EJECUCIÓN

El plazo de ejecución del contrato, el comprendido por las temporadas estivales oficiales de cada año de contrato, será de dos años, esto es, el de los años 2023 y 2024.

Con carácter general la temporada estival oficial es aquella que abarca todos los días comprendidos entre el 15 de junio y el 15 de

Udalak, egoki iruditzen bazaio, kontratuko zerbitzuak emango diren udaldi bakoitzaren hasierako eta amaierako egun ofizialak alda ditzake. Kasu horretan hasierako eguna baino hilabete lehenago jakinaraziko du.

septiembre, ambos inclusive.

El Ayuntamiento modificará, si lo considera oportuno, las fechas oficiales de inicio y final de cada una de las temporadas estivales para las que se realiza el presente contrato, notificándolo con una antelación de un mes a la fecha del inicio.

3.- <u>ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA</u>

Adjudikaziodunak zerbitzu orokor hauek eskainik ditu:

- Bainurako guneak mugatu.
- Zaintza egin.
- Salbamenduak egin.
- Laguntza eman.

3.- <u>DESCRIPCIÓN DEL SERVICIO</u>

Dentro de las prestaciones generales a realizar por la empresa adjudicataria se incluyen:

- Delimitación de las zonas de baño.
- Vigilancia
- Salvamento
- Asistencia

3.1.- BAINURAKO GUNEAK MUGATU

Adjudikaziodunak udaldi ofizialeko egun guztietan, itsasoaren egoeraren eta klimatologiaren balorazio sakona egingo du. Itsas korronteak eta nagusitzen diren haizeak aztertu ondoren, gune bakoitzean dagokion bandera jarriko du, itsasertzetik hurbil eta ongi ikusteko moduan.

BERDEA – bainu libreko guneetan
HORIA – kontuz bainatzeko guneetan
GORRIA – bainua debekatutako guneetan
GORRI/URDINA – itsasoko jolas eta kiroletarako guneetan

3.1.- DELIMITACIÓN DE LAS ZONAS DE BAÑO

Deberá la empresa adjudicataria todos los días de la temporada estival oficial realizar una valoración visual exhaustiva del estado de la mar y la climatología, para una vez analizadas las corrientes marinas y los vientos reinantes proceder a colocar cerca de la orilla y de forma visible la bandera oportuna para cada zona:

VERDE – En zonas libres para el baño.
AMARILLA – En zonas para el baño con precaución.
ROJA – En zonas prohibidas para el baño.
ROJA/AZUL – En las zonas para juegos y deportes acuáticos.

Uraren kalitateari buruzko informazioari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailetik bidalitako txostenak aztertu ondoren, Udaleko Zerbitzu Teknikoek esango diote adjudikaziodunari zein bandera eta non jarri behar dituen. Gainera, ura laginen emaitzak hondartzako erabiltzaileen begi-bistan jarri beharko ditu adjudikaziodunak.

En cuanto a la información referente a la calidad del agua, corresponderá a los Servicios técnicos Municipales, una vez analizados los informes enviados desde el Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco, indicar a la empresa adjudicataria del Servicio, el lugar y la bandera a colocar. Además, la empresa adjudicataria tendrá que colocar en un lugar visible los resultados de las muestras de agua.

Banderak jartzeko orduan, bainulari guztiak hondartzako toki jakinetan, inolako

La empresa adjudicataria evitará en todo momento a la hora de colocar las banderas,

koherentziarik gabe, pilatzeko ohitura ezingo da hartu.

entrar en una dinámica rutinaria y sin coherencia de intentar agrupara los bañistas en zonas concretas de la Playa.

3.2. ZAINTZA

3.1. VIGILANCIA

Zaintzaren helburua da gertaera guztiak lehenbailehen detektatzea eta baita gertaera hori zein tokitan gertatu den jakitea ere, horren ondoren, egin beharrekoa egiteko.

El objeto de la vigilancia es el de detectar rápidamente cualquier posible incidente y el lugar donde se produce, para posteriormente actuar en consecuencia.

Zerbitzuaren adjudikaziodunak hondartza osoa zaindu beharko du, eta arreta berezia jarriko du bainurako egokiak diren zonetan. Horretarako hondartzetan dauden talaiak erabiliko ditu.

La empresa adjudicataria del Servicio deberá realizar la vigilancia en la totalidad de la playa, prestando especial atención en las zonas denominadas aceptables para el baño, y utilizando para ello las atalayas existentes en las playas.

Azken finean, talaia finkoetatik edo zaintza patruiletatik, edo bainularien abisuetatik jasotako gertakizunen aurrean, azkar jardutea da helburua.

Se trata en definitiva de realizar actuaciones rápidas en caso de incidencias notificadas desde los distintos puntos fijos o patrullas de vigilancia, o ante el aviso de los propios bañistas.

Zaintza zerbitzuak ordutegi hau izango du bi hondartzetan: 10:30-20:00

La vigilancia se deberá prestar en ambas playas desde las 10:30 hasta las 20:00 horas.

Bainua debekatzeko bandera gorriak jartzen diren hondartzako gune zehatzak ere zaindu egingo ditu adjudikaziodunak.

La colocación de banderas rojas que indican la prohibición del baño, en zonas concretas de la playa, no exime a la empresa adjudicataria de la realización de la vigilancia de dichas zonas.

Hondartzetan baimendutako kirol jardueren kontrola eraman; hau da, ordutegiak eta ikastaro bakoitzean dabilen pertsona kopurua kontrolatu beharko dute.

Llevar el control de las actividades deportivas autorizadas. Esto es, deberán controlar que se cumple el horario y el número de personas autorizadas.

Hondartzako erabiltzaileak eremu arriskutsuetan ibil daitezen eragotzi beharko dute.

Evitar que las personas usuarias de las playas se sitúen en zonas de riego.

3.3 SALBAMENDUA

3.2. SALVAMENTO

Salbamendu zerbitzua exijitutako gutxieneko giza baliabideekin egingo da. Horiek eginkizun horretarako titulazio berezia izango dute, eta kontratatu den zerbitzuari atxikitako bitarteko mekaniko eta lokomoziozkoekin osatuko dira.

El servicio de salvamento se realizará con el mínimo de medios humanos exigido, que dispondrán necesariamente de titulación específica para ello, complementados con los medios mecánicos y de locomoción asignados al servicio que se contrata.

Zerbait gertatzen denean, kontratatutako

En los casos de incidente, el servicio

zerbitzua saiatuko da erabiltzailea egoera txar horretatik salbatzen eta dagokion laguntza ematen. Horretarako lehenengo lekuan bertan beharrezko neurriak aplikatuko dizkio, eta gero handik botikinaren gunera eramango du, edo bestela, kasu bakoitzean dagokion osasun zentrora eramateko bitarteko egokiak kudeatuko ditu.

contratado, intentará salvar a la persona usuaria en el entorno adverso y efectuar el auxilio correspondiente, aplicando las medidas necesarias en el propio lugar de los hechos, así como un traslado posterior, bien al botiquín base o gestionar el traslado con los medios adecuados hasta el centro sanitario que proceda en cada caso.

3.4 LAGUNTZA

Hondartzan egindako edozein jardueraren ondorioz sor daitezkeen kasu guztiak artatuko ditu adjudikaziodunak, hala nola, ebakiak, intsektu eta arrainen helduak, digestio etendurak, zorabioak, etab.

Bai zaintzako patruilek, bai botikin guneak eskatutako zerbitzuak emateko giza baliabideak izango dituzte eta horiek prestakuntza egokia izango dute.

Zerbitzu hau emateko, beharrezko ekipo eta materialak izateaz gain, nahitaezkoa izango da tratu pertsonal egokia eskaintzea, istripua izan duena babestuta eta begirunez tratatuko duten langile atseginen esku dagoela senti dadin.

Gertatutako lekuan bertan edo botikin gunean laguntza lanak egin ondoren, eta beharrezkoa izanez gero, istripua izan duena kasu bakoitzean dagokion osasun zentrora eramango da.

Anbulantzia behar bada, eskatu egingo da.

3.3. ASISTENCIA

La empresa adjudicataria deberá atender, todos aquellos casos que pudieran surgir como consecuencia de cualquier tipo de actividad realizado en la playa, como pueden ser, todo tipo de cortes, picaduras de insectos y peces, cortes de digestión, mareos, etc.

Se deberá contar con los medios humanos necesarios y con la preparación exigida para atender tanto los servicios solicitados a las patrullas de vigilancia, como en el botiquín base.

Para la realización de este servicio, además de contar con los equipos y materiales precisos, será indispensable responder con un trato personal adecuado, de forma que el/la accidentado/a se sienta protegido/a y en manos de un personal educado y amable.

Una vez efectuadas las labores de asistencia, bien en el lugar de los hechos o bien en el botiquín base y en caso de que fuese necesario, se evacuará al/a la accidentado/a hasta el centro Sanitario que proceda en cada caso.

En el caso de que se precisara la presencia de una ambulancia, se requerirá el uso de la misma.

4.- <u>ZERBITZUAREN ANTOLAKETA</u>

Lehiatzaile bakoitzak aurkezten duen eskaintzan baldintzen agiri honetan adierazitakoa betetzeko beharrezkoa iruditzen zaion barne antolaketa planteatuko du.

Zerbitzua zabalduko duten irtenbideak ere planteatu ahalko dira, bai jende andana etortzen den egunetarako, klimak izan

4.- <u>ORGANIZACIÓN DEL SERVICIO</u>

En la presentación de las ofertas, cada proponente planteará la organización interna que considere necesaria, para cumplir con lo indicado en el presente Pliego de Condiciones.

Podrán en todo caso plantearse soluciones que contemplen ampliaciones, en días de

ditzakeen gorabeheretarako edo hondartzen antolatutako ekitaldietarako, esate baterako, surf txapelketa, igeriketa, hondartzako boleibola, bainularien joan-etorri handiko egunak ibaian…

Jarduketak proposatzerakoan bereziki kontuan izango dira hondartzako gune jakin batzuetako baldintza bereziak, hala nola, itsas korronteak, surflarien presentzia eta abar.

2021ean, Portu eta Itsas Gaietako zuzendaritzak, udako denboraldian, ibaian hiru bainu-gune egokitzeko baimena eman zigun. Baimen horretan adierazten da udalak osasun-langileak izan behar dituela eremu horretan portukoa ez den erabilerak eragin ditzakeen arriskuetarako. Hori guztia dela eta, beharrezkoa da uztailean eta abuztuan sorosle bat gune horretan izatea.

Udalarekin denbora guztian harremanetan egoteko, eskaintza egiten duenak aldian-aldian txostenak egin behar dituela kontuan izan beharko du. Hauek dira aldizkakotasunak:

- Berehalako txostena: presaz bidaliko da ezohiko zerbait gertatzen den bakoitzean.

- Asteroko txostena: astero bidaliko zaio Udal Zerbitzu Teknikoetako buruari edo bere ordezko izendatzen duenari. Txostena faxez edo posta elektronikoz bidaliko da eta bertan gertakarien datuak adieraziko dira.

- Udaldiko txostena: udaldi ofiziala bukatu ondoren, 15 eguneko epean bidaliko dena. Txosten zehatza izango da eta egindako jarduketak, gastuak eta alderdi nabarmenenak adieraziko dira bertan, eta egoki iruditzen diren oharrak ere idatziko dira.

máxima afluencia, del estado climatológico o de actuaciones programadas en la playa, tales como Campeonato de Surf, Natación, voley playa, días de gran afluencia de bañistas en la ría...

Serán especialmente tenidas en cuenta las circunstancias especiales de zonas concretas de la playa en cuanto a corrientes, presencia de surfistas, etc., en el planteamiento de las propuestas de actuación.

En el año 2021 la dirección de Puertos y asuntos Marítimos nos autorizó para la utilización de tres zonas de baño en la ría durante la temporada estival. En dicha autorización se indica que el ayuntamiento debe disponer de personal sanitario para los riesgos que se pudieran acarrear el uso no portuario en dicha zona. Por todo ello es necesario un socorrista durante los meses de julio y agosto en esta zona.

Para mantener una relación fluida con el Ayuntamiento, deberá el/la ofertante plantearse la realización de informes con las siguientes periodicidades:

— Informe inmediato, será aquel enviado de manera urgente, siempre que ocurra un incidente no rutinario.

— Informe semanal: será aquel, que todas las semanas se deberá enviar al o la Jefa o persona en quien delegue de los Servicios Técnicos Municipales. El informe se enviará por fax o e-mail y en el mismo se indicarán los datos de los incidentes acaecidos.

— Informe de temporada, será aquel que en un plazo de 15 días, una vez finalizada la temporada estival oficial, deberá entregarse a modo de memoria detallada, indicando las actuaciones prestadas, gastos efectuados y cuantos aspectos destacables y sugerencias se estimen oportunas.

5.-ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA ETA BITARTEKOAK

Zumaiako hondartzako zaintza, salbamendu eta laguntza zerbitzua egiteko ondorengoak izango ditu kontuan adjudikaziodunak:

1.- Udalak zehaztutako udaldi ofizial osoan emango da zerbitzua, goizeko 10:30etik arratsaldeko 20:00etara, etenik egin gabe.

2.- Bai lanaldiaren hasieran bai bukaeran, adjudikaziodunak hondartzako erabiltzaileei jakinaraziko die zaintza, salbamendu eta laguntza zerbitzua noiz hasi eta noiz bukatzen den. Horretarako hondartzan jarritako megafonia ekipoa erabiliko du. Megafonia ekipoaren alokairua eta mantentzea Udalaren kontu izango da.

3.- Megafoniatik zabaltzen diren mezu guztiak lau hizkuntzatan egingo dira: euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez; eta ordena horretan.

4.- Enbata etor daitekeela ikusiz gero edo badatorren abisua jasoz gero, lehenengo zenbaterainoko larritasuna daukan aztertuko da. Ondoren adjudikaziodunak Udaltzaingoari pasatuko dio abisua. Sorosleek hondartzako erabiltzaileei enbataren berri emango die, lasaitasunez eta jendea nahasi eta beldurtu gabe. Horretarako hondartzan jarritako megafonia erabiliko du.

5.- Hondartzan haurrak galdu edo desorientatzen badira, adjudikaziodunak kontu handiz saiatuko da gurasoak edo, hala dagokionean, galduta dabiltzan haurrak aurkitzen. Horretarako, beharrezkoa izanez gero, hondartzako megafonia erabiliko du. Gainera, adjudikaziodunak umeak identifikatzeko eskumuturrak izango ditu eskuragarri.

6.- Megafonia erabiltzerakoan

5.- DISPOSICIÓN Y MEDIOS

Para la realización del Servicio de Vigilancia, Salvamento y Asistencia de la playa de Zumaia deberá la empresa adjudicataria tener en cuenta las siguientes consideraciones:

1.- El servicio se realizará durante toda la temporada estival oficial determinada por el Ayuntamiento y de forma ininterrumpida de 10:30 a 20:00 horas.

2.- Tanto al inicio de la jornada como a la finalización de la misma deberá la empresa adjudicataria informar a las personas usuarias de la playa, mediante el equipo de megafonía instalado al efecto, del comienzo y final del servicio de vigilancia, salvamento y asistencia.
El equipo de megafonía necesario, será instalado y mantenido por y a cargo del Ayuntamiento.

3.- La totalidad de los mensajes que se emitan por la megafonía, se realizarán en cuatro idiomas (euskera, castellano, francés e inglés) y por este orden.

4.- Ante el aviso o apreciación propia de probable presencia de galerna y una vez analizada la importancia de la misma, procederá la empresa adjudicataria una vez pasado el aviso a la Policía Municipal, a informar a las personas usuarias de la Playa, por medio de la megafonía instalada al efecto, manteniendo la calma y evitando en todo momento crear desconcierto y pánico entre las mismos.

5.- En el supuesto de que se diera el caso de pérdida o desorientación de niños/as en la zona de la Playa, la empresa adjudicataria procurará con mucho tacto dar con los padres o madres de los/as mismos/as o en su caso con los/as niños/as desorientados/as. Para ello, si fuese necesario recurrirá a la megafonía instalada al efecto. Además ofrecerá pulseras identificativas a las personas usuarias que las requieran.

6.- A la hora de utilizar el equipo de megafonía

adjudikaziodunak zaintza, salbamendu eta laguntza zerbitzuarekin lotutako mezuak bakarrik helaraziko ditu; hala ere, Alkatetzak erabaki dezake erabiltzaileei informazio orokorreko mezuak helaraztea.

la empresa adjudicataria procurará no trasladar mensajes que no tengan relación directa con el servicio de vigilancia, salvamento y asistencia, a excepción de aquellos mensajes que desde la Alcaldía se decidan transmitir, para información general de las personas usuarias.

7.- Udalak kontratuaren esku utzitako gela eta tresna guztiak (hau da, botikina, megafonia ekipoa, aldagelak, komunak, etab.) garbi-garbi eta egoera onean mantendu beharko ditu adjudikaziodunak; hau da, lagatzen diren eraikinen garbiketa egunero egin beharko du adjudikaziodunak.

7.- Las dependencias que el Ayuntamiento ponga a disposición del contrato, léase, botiquín, equipo de megafonía, vestuarios, baños, etc., deberá la empresa adjudicataria mantenerlas en perfecto estado y limpias; por lo que la empresa adjudicataria se encargara de la limpieza diaria de las dependencias.

8.- Bai talaietan dauden sorosleak, bai patruilan dabiltzanak txukun jantzita ibiliko dira. Hondartzako erabiltzaileek zailtasunik gabe ezagutzeko, behar beste anagrama eta bereizgarri eramango dituzte arropetan.

8.- Las personas socorristas, tanto las que se encuentren en las atalayas, como las que se encuentren realizando patrullas, estarán vestidas con decoro. Llevarán vestidas prendas con los anagramas y distintivos suficientes, para que las personas usuarias de la Playa puedan distinguirlas sin ninguna dificultad.

9.- Adjudikazioduna egunero-egunero arduratuko da banderak, kartelak eta kontratatutako zerbitzuan erabiliko diren elementu guztiak lanaldiaren hasieran jartzeaz eta bukaeran basera eramateaz, baita Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak jartzeko eskatzen dituen kartelak ere. Udalak pasabide desmuntagarriak jartzea erabakitzen badu, pasabide horiek mareen arabera jarri eta jaso behar dira, eta betiere, eguneko zerbitzua bukatu ondoren jaso egin beharko dira.

9.- Diariamente la empresa adjudicataria se responsabilizará de colocar al inicio de la jornada y retirar a la base al finalizar la misma, las banderas, carteles y cuantos elementos se utilicen destinados al servicio que se contrate, incluyendo aquellos carteles que desde el Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco se indiquen colocar. En el caso de que el ayuntamiento decidiera colocar pasarelas de acceso desmontables, éstas se deberán colocar y recoger en función de las mareas, y recoger en todo caso al finalizar el servicio diario.

10.- Hondartzan zaintzarako dauden guneen mantentze lanak adjudikaziodunaren kontura egingo dira.

10.- El mantenimiento de todos los elementos que componen los puntos de vigilancia existentes en las playas, serán por cuenta del/la Adjudicatario/a.

11.- Egoera klimatologiko txarrarekin ere adjudikaziodunak zerbitzua eskaini egin behar du, sor daitezkeen gorabeherei aurre egiteko.

11.- Las malas condiciones climatológicas no serán excusa para que la empresa adjudicataria deje de prestar el servicio necesario para hacer frente a las eventualidades que pudieran surgir.

12.- Zerbitzuko langileek erabiltzaileen segurtasuna zainduko dute, eta bainurako eta balizatutako guneetako jarraibide eta

12.- El personal del Servicio velará por la Seguridad de las personas usuarias, de manera que procurará hacer cumplir las indicaciones y

debekuak betearazten saiatuko dira. Edonola ere, Udalak izango du bainularien jarrera gaitzesgarriak zigortzeko ahalmena.

prohibiciones de las zonas de baño y balizamiento. En todo caso corresponderá al ayuntamiento la potestad de sancionar actitudes reprobables de las personas bañistas.

13.- Koordinatzaile arduradunak idatziz jakinaraziko dio Udaleko Zerbitzu Teknikoetako buruari edo haren ordezkoari, hondartzako erabiltzaileentzat arriskutsua izan daitekeen material edo instalazio hondaturik ikusiz gero.

13.- La persona responsable coordinadora deberá notificar por escrito al o la Jefa o persona en quien delegue de los Servicios Técnicos Municipales, cualquier deterioro localizado en materiales e instalaciones que pudieran representar riesgo para las personas usuarias de la Playa.

14.- Adjudikaziodunak lagundu egingo dio Udalari, hondartzarekin eta inguruarekin lotuta egiten dituen kanpaina guztietan (segurtasun eta higienearen ingurumen kanpainak, etab.).

14.- La empresa adjudicataria deberá colaborar en todas aquellas campañas que el Ayuntamiento organice, con respecto de la Playa y su entorno, como puedan ser, campañas medioambientales de seguridad e higiene, etc.

15.- Itsas motorretan ibiliko diren langileek salbamendu txalekoak erabiliko dituzte beti.

15.- El personal que intervenga en las motos acuáticas utilizará siempre chaleco salvavidas.

18.- Debekatuta dago lehiaketa honen xede den zerbitzuarekin zerikusirik ez duten intsignia eta pegatinak erabiltzea.

18.- Queda prohibida la utilización de insignias y pegatinas que no estén relacionadas con el servicio objeto del Concurso.

6.- ENPRESAKO LANGILEAK

Enpresak baldintza teknikoen agiri honetako lan guztiak egiteko beharrezko langileak izan behar ditu beti, behar adina eta behar bezalako baldintzatan.

6.1.- Zaintza, salbamendu eta laguntza zerbitzua:

Ekainaren 15etik ekainaren 30era eta irailaren 1etik 15era gutxienez giza baliabide hauek izango dira zerbitzua emateko ordutegian:

ITZURUN HONDARTZA

- Zerbitzuaren arduradun bat
- 2 sorosle
- Itsas motorra gidatzeko gaitua dagoen sorosle bat

6.- PERSONAL DE LA EMPRESA

La Empresa Adjudicataria deberá disponer en todo momento del personal necesario en número y condiciones para efectuar todos los trabajos especificados en el presente Pliego de Condiciones Técnicas.

6.1.-Servicio de vigilancia, salvamento y asistencia:

Se contará como mínimo con los siguientes recursos humanos durante el horario de prestación del servicio entre el 15 y el 30 de junio, y entre el 1 y el 15 de septiembre:

PLAYA DE ITZURUN

- Un responsable del servicio.
- 2 socorristas.
- Un/a socorrista capacitado/a para conducir la moto acuática.

SANTIAGO HONDARTZA

- Zerbitzuaren arduradun bat
- 2 sorosle.

Uztailaren 1etik abuztuaren 31ra (biak barne), gutxienez giza baliabide hauek izango dira zerbitzua emateko ordutegian:

ITZURUN HONDARTZA

- Zerbitzuaren arduradun bat
- 3 sorosle
- Itsas motorra gidatzeko gaitua dagoen sorosle bat

SANTIAGO HONDARTZA

- Zerbitzuaren arduradun bat
- 2 sorosle.

IBAIKO BAINU EREMUA

- 1 sorosle.

6.2.- Langileen profila ondorengoa izango da:

- Zerbitzuaren arduraduna: lehen laguntzen eta uretako sorospenaren prestakuntza ikastaroa.
- Sorosleak: lehen laguntzen ikastaroa eta uretako sorospenaren prestakuntza ikastaroa.
- Itsas motorra gidatzeko gaitutako soroslea: Itsas motorrak gidatzeko baimena eta uretako sorospenaren prestakuntza ikastaroa.

Zerbitzua emateko beharrezko giza baliabide zuzenak nahiz zeharkakoak izan behar ditu beti enpresak, lehiaketako lanak gauzatzea bermatzeko eta gerta daitezkeen gorabeherei aurre egiteko moduan egoteko, adibidez, gaixotasun bajak, istripu bajak, lanera huts egitea, baimenak, lan sindikalak eta justifikatutako bestelako kausak. Izan ere, langileen huts egiteak nahiz bajak berehala konpondu beharko dira.

PLAYA DE SANTIAGO

- Una persona responsable del servicio.
- 2 socorristas.

Se contará como mínimo con los siguientes recursos humanos durante el horario de prestación del servicio entre el 1 de julio y el 31 de agosto (ambos inclusive):

PLAYA DE ITZURUN

- Una persona responsable del servicio.
- 3 socorristas.
- Un/a socorrista capacitado/a para conducir la moto acuática.

PLAYA DE SANTIAGO

- Una persona responsable del servicio.
- 2 socorristas.

ZONA DE BAÑO DE LA RIA

- 1 socorrista.

6.2.- El perfil del personal será el siguiente:

- Responsable del servicio: curso de primeros auxilios y curso de formación en socorrismo acuático.
- Socorristas: curso de primeros auxilios y curso de formación en socorrismo acuático.
- Socorrista capacitado/a para conducir la moto acuática. Permiso para conducir la moto acuática y curso de formación en socorrismo acuático.

La Empresa Adjudicataria deberá disponer para realizar los Servicios de los medios humanos tanto directos como indirectos necesarios para asegurar en todo momento la ejecución de los trabajos objeto del Concurso y cubrir eventualidades como bajas por enfermedad o accidente, absentismo laboral, permisos, labores sindicales, y otras causas debidamente justificadas. Dichas ausencias o bajas del personal deberán ser cubiertas de forma inmediata.

Dedikazio osoz arituko den koordinatzaile nagusi bat izango da langileen buru. Pertsona hori udaldia hasi baino 15 egun lehenago hasiko da zerbitzua ematen, eta udaldia bukatu eta 15 egunera amaituko du.	Al frente de este personal deberá existir una persona responsable con funciones de coordinadora general a plena dedicación, dicha persona iniciará los trabajos de prestación del servicio 15 días antes de la temporada estival, y finalizará 15 días después del final la temporada.
Arduraduna egunero jarriko da harremanetan Udaleko Zerbitzu Teknikoekin, jakinarazi beharreko ohar edo jarraibideen berri emateko; hortaz, aurkitzeko moduan egon beharko du egun guztian, telefono mugikor baten bidez.	Esta persona se pondrá en contacto diariamente con la Servicios Técnicos Municipales, para conocer los avisos e indicaciones que desde el mismo se le quieran trasladar, debiendo estar localizable por medio de un teléfono móvil durante toda la jornada de trabajo.
Lanari buruz esan beharreko guztiak arduradunari jakinaraziko dizkio Udalak, baina enpresaren zuzendaritzari ere jakinarazteko aukera izango du.	Todas las indicaciones que el Ayuntamiento crea necesarias, serán dirigidas al citado encargado de la empresa adjudicataria, sin perjuicio de poderlas dirigir igualmente a la dirección de la empresa.
Adjudikaziodunak agiri honetan jasotako zereginak betetzeko plantillan sartutako arduradun eta langileen izenak, mailak eta gainerako xehetasun pertsonalak jakinarazi eta horietan gertatutako aldaketen berri eman beharko dio Udalari eta Udalak aukera izango du teknikari edo langileren bat aldatzea proposatzeko, ez badu egoki ikusten kontratu honetako zerbitzua emateko.	Se notificará al Ayuntamiento los nombres, categorías y demás circunstancias personales, tanto de los responsables, como de las personas operarias que hayan de cubrir la plantilla para el desempeño de las misiones a que se refiere el presente Pliego, así como las variaciones que se produzcan en las mismas, pudiendo el Ayuntamiento proponer el cambio del personal técnico y personal que no sea considerado idóneo para el servicio objeto del contrato.
Zerbitzuak aldez aurretik planifikatuko dira; hartara, postu bakoitzeko zerbitzuen esleipen egutegi bat egongo da.	El servicio se deberá de planificar con anterioridad; de tal manera que deberá existir un calendario en el que se especifiquen los servicios.
Zerbitzuko langile guztiek egin beharreko lanerako arropa egokia jantzita egon beharko dute beti.	Todo el personal del Servicio deberá ir, vestido en todo momento, de acuerdo con su cometido.
Lehiatzaile bakoitzak arropen zerrenda zehatza aurkeztu beharko du, bai eta langile bakoitzak erabiliko duen salbamenduko material osagarriena ere. Zerrenda horiek Udaleko Zerbitzu Teknikoek onartu beharko dituzte.	Cada parte licitadora deberá presentar una relación detallada de las prendas de vestuario, así como del material auxiliar de salvamento que va a emplear cada persona operaria que habrá de ser aprobado por los Servicios Técnicos Municipales.
Adjudikaziodunaren erantzukizuna izango da	La empresa adjudicataria se responsabilizará

langileak zikin, gizalegerik gabe edo uniformetasunik gabe badabiltza, bai eta orokorrean erabiltzaileekin begirunerik gabe edo tratu txarrean badabiltza.

de la falta de aseo, decoro y uniformidad en el vestuario, así como de la descortesía o mal trato que se observe en el personal del servicio hacia las personas usuarias en general.

Adjudikaziodunak bere kargura dituen langile guztiak behar bezala aseguratuta eduki behar ditu.

La empresa adjudicataria deberá tener debidamente asegurado a todo el personal a su cargo.

Zumaiako Udalak bere hondartzetan ingurumen kudeaketa ISO 14001 ziurtagiria duenez, enpresa adjudikaziodunak ziurtagiri horretan inplikatuta dauden udal zerbitzuek ematen dizkioten argibideak bete eta bere gain hartu beharko ditu, Salbamendu eta sorospen zerbitzuaren berezko funtzioei dagokienez.

Dado que el Ayuntamiento de Zumaia cuenta con el Certificado de gestión ambiental ISO 14001en sus playas, la empresa adjudicataria deberá realizar y asumir cuantas instrucciones reciba de los servicios municipales implicados con dicho certificado, en lo referente a las funciones propias del servicio de salvamento y socorrismo.

